



Iturria: Diario de Noticias de Gipuzkoa.
Argazkilaria Zarrabeitia.

Javier Berasategi

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Lehendakaria ohia

Javier Berasategi Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko lehendakaria ohia da. 1973an Bilbon jaioa da, eta Deustuko Unibertsitatean egin zituen Zuzenbide eta Enpresa Zientzietako ikasketak. Leidengo Unibertsitatean (Holandan) eta Brugge-ko Europako Kolegioan (Belgikan) Europar zuzenbideko gradu-ondoko ikasketak burutu zituen. Bruselan lan egin zuen, lehiaren inguruko gaietan espezialdutako nazioarte mailako bulegotan. Lehiaren babespenari buruzko artikulua ugari idatzi eta hitzaldiak ematen ditu. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko kide eta lehendakaria ere izan da.

1.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia (web orrian) ala Lehiaren Babeseko Euskal Auzitegia (36/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Lehiaren Babeseko Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Babes Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zituen dekretua aldatzeko dena)? Zer da "Auzitegi" hau, ez baita organo jurisdikzionala?

Egia esan, Auzitegia ez da benetako organo jurisdikzionala, baizik eta administratiboa; beraz, ez gara epaileak eta ez ditugu epaiak sinatzen, baizik eta ebazpenak. Hori bai, Lehiaren Babeseko Legeak aginduta, geure ebazpenetan isunak eta beste eratako zigor larriak jartzeko ahalmena dugu. Beraz, formalki ez bezala, praktikan lehen instantzia bat bezala lan egiten dugu, eta geure ebazpenen aurka helegitea aurkez dezakete interesatuek Euskadiko Goi Epaitegiaren aurrean.

2.

Zer nolako lanak burutzen ditu Lehiaren Defentsarako Auzitegiak? Zeintzuk dira bere helburuak?

Geure lanak hiru arlotan banatu ditzakegu. Aurrena, enpresak egindako lehiaren aurkako jokaerak zigortzen ditugu. Bigarrena, merkatuei buruzko ikerketak egin eta txosten orokorrak argitaratzen ditugu, lehiaren aurkako merkatu estrukturak, enpresa jokaerak eta legediak azaleratuz. Hirugarrena, Administrazioek egindako lehiaren aurkako arauak eta ekintzak aztertu eta hauek zuzentzeko proposamenak prestatzen ditugu. Gainera, legeak ez diren arauen eta bestelako ekintzen aurka helegitea aurkezteko ahalmena dugu printzipioz, baina hori gauzatzeko lege baten bitartez sortuak izan beharko ginateke (Dekretu batek sorrarazi zuen Auzitegia 2006an), eta horren zain gaude.

3.

Azken urte hauetan Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia ospetsua egiten ari dela esango nuke. Alde batetik, zuen zenbait ikerketa eta txosten azpimarratuko nituzke. Horiek nabarmendu dute, adibidez, denda eta saltoki handiek jai egunetan bat ere ez dutela irekitzen edota zenbait saltoki handik prezioak ezartzen dituztela, prezioen igoera eraginez. Txosten horiek albiste izan dira eta oihartzun handia eragin dute komunikabideetan. Nola hartu ditu gizarteak? Zer nolako erantzuna jaso duzue gizartearengandik?

Lehiaren Babeseko arauak nahiko teknikoak dira, eta gaia ulertzeko zailtasunak ditu gizarteak; beraz, gu saiatzen gara pedagogikoak izaten adibideen bidez: edonork ulertzen du ezein denda edo enpresek, gehiago irabazteko asmoz, elkarren artean prezioak adosten dituztenean, haiek irabazle bai, baina bezeroak, eta azken baten, kontsumitzaileak galtzaile suertatzen direla. Alde horretatik, kontsumitzaileen erakundeekin harreman estuak ditugu, eta konferentzia, kurtso eta beste eratako agerpen publikoen bitartez, gizarte guztiairengana ailegatzen saiatzen gara.

4.

Bestalde, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak ebazpenak ere ematen ditu, eta ebazpen bidez ezarritako zenbait isun ere gizartean ezagunak egin dira; esate baterako, 2007an ASETRAVI kasua, 2008an ASFALTU EKOIZLEEN kasua eta 2009an HIRU, Euskal Herriko Garraiolarien Sindikatuaren kasua. Isun hauek lehiarekiko errespetua edo kezka eragin al dute merkatuan jarduten dutenengan?

Geure lehenengo helburua lehiaren babeseko legediarengan errespetua zabaltzea da, eta enpresek legea gero eta gehiago bete ahala, geuk isunak jartzeko behar gutxiago izan dugu. Beraz, geure helburua enpresek beren kabuz legea betetzea da, eta hori lortzen dugunean, ez dugu isunak jartzeko beharrik izango. Hori lortu arte, legea betetzen ez dutenek jakin behar dute Auzitegiak isunak jartzeko beldurrik ez duela izango, eta bere betebeharrak egingo dituela.

5.

Dena den, lehia urratzeagatik hasitako prozedurak hitzarmen bidez ere amaitu daitezke, isunik jarri gabe; hori bai, zenbait baldintza eta konpromiso hartu eta bete ezkerro. Zer nolako harrera du honek?

Aurrez esan bezala, geure helburu nagusia legediarekiko errespetua zabaltzea da, eta enpresek ulertzea lehia dela beren biziraupenerako estrategia hoberena. Horregatik, pentsatzen dugu egokia dela isunak gutxitzea enpresa batek bere gaizki egina aitortu eta bere jokaera zuzentzeko konpromisoa adierazten duenean. Sendagintza arloan esaten duten bezala, sendotzeko lehenengo urratsa gaixotasuna onartzea da, eta enpresa batek bere gaizki egina aitortzen duenean, merkatuan lehia bermatzeko eta sendotzeko urrats handia eman da. Orain arte, bide hau indarrean dagoenetik hartutako bi ebazpenetan erabili dugu; beraz, oso pozik gaude emaitzekin.

6.

Tramitatutako espediente asko ofizioz hasi dituzue. Baina badira lehiakideen salaketagatik hasitakoak ere. Lehiaren aurkako portaerak salatze joera nabarmentzen hasi al da?

Badirudi gizarteak Auzitegiaren berri gero eta gehiago izan orduan eta gehiago ugaltzen direla salaketak; beraz, joera nabarmenduko dela itxaropentsu gaude.

7.

“Lehiaren testa” martxan jarriko zenutela ere iragarri zenuten. Zertan da zuen ekimen hori?

Lehiaren testa Erresuma Batuan erabiltzen dute. Supermerkatu kate batek herri merkatu batean 60% baino gehiagoko kuota badauka supermerkatu handien mailan (1.000 metro karratu baino gehiago), eta hiru lehiakide baino gutxiago badaude merkatu horretan, autoritateak ez dute baimentzen kate nagusiak bere kuota handitzea. Dagoeneko, antzerako azterketa erabiltzen hasi gara Eusko Jaurlaritzak eman behar dituen baimen komertzialen inguruan. Adibidez, Eroskik Gasteizen duen kuota handia

dela-eta, Salburua auzoan bere supermerkatu berri bat onartzeko, Gasteizeko hiriburuan duen supermerkatu bat lehiakide bati saltzea proposatu egin diogu EJri.

8.

Orain arte, enpresa pribatuen portaeraz jardun dugu. Baina, nola portatzen da sektore publikoa, lehiaren ikuspegitik begiratuta?

Nire ustez, enpresak baino askoz ere txarrago. Lehiaren aurkako eraso zakarrenak botere eta enpresa publikoek egiten dituzte. Legezko monopolioak apurtu ezinak dira, beraz txarrenak dira lehiarentzako eta kontsumitzaileentzako. Laguntza publikoek ere merkatu oso distorsionatzen dute.

9.

Hala ere, sarritan, eta are gehiago krisi ekonomikoa denean, enpresek, eta oro har, gizarteak ere, laguntza publikoak eskatzen dituzte. Hori al da bidea? Zilegi al da?

Laguntza publikoak ekonomia mailan beti dira arriskutsuak, eta kaltegarri izateko aukera asko daude. Politikariei galdetu egin behar zaie zergatik laguntzak sektore bati eta ez beste bati; eta sektore baten barruan, zergatik enpresa batzuei eta ez besteei. Erabaki hauek politikoak dira, eta interes pribatuak interes publikoak kutsatzeko eta baztertzeko aukera asko daude.

10.

Zeintzuk dira Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak bere lana burutzeko topatzen dituen oztopo eta zailtasun nagusienak (enpresariak, politikariak, administrazioa, gizartearen pentsaera, baliabideak ...)?

Oztopoak betikoak dira: aurrekontu murriztuak, langile gutxi, politikarien susmoak organo independente batek beren boterea zalantzan jartzen duenean eta enpresen susmoak organoaren kideen izendapen politikoa dela-eta.

11.

Erkidego Autonomikoetako lehiaren defentsarako organoak konforme al zaudete Espainiar Estatuan diseinatutako sistemarekin (eskumenen banaketa, informazio trukaketa, organo desberdinen arteko lankidetzak ...)? Estatuko organo zentralak (Comisión Nacional de la Competencia) eta Erkidego Autonomikoetako organoek sare funtzional eta eraginkor bat osatzen duzuela esan al daiteke?

Azken bi urtetan, organo autonomikoak ugaltu ahala, benetako sare eraginkor bat sortzen ahalegindu gara. Horretarako, autoritateen bilerak antolatzen ditugu urtero (geuk antolatu egin genuen lehena orain dela hiru urte), eta lan taldek sortu ditugu alor batzuetan. Adibidez, guk komertzioaren lan taldea zuzentzen dugu, eta Zerbitzu Direktibaren inguruan sortu diren eta sortuko diren arazo guztiak elkarrekin aztertzen ditugu.

12.

Estatu mailan lehia babesteko egiten diren ahaleginek bilakaera ona dutela uste al duzu? Zeintzuk dira alde sendoak eta ahulak?

2007ko Lehiaren lege berriak autoritateen ahalmenak sendotu egin ditu, eta dagoeneko, Lehiaren Batzorde Nazionala isun gehiago eta handiagoak jartzen hasi da. Gainera, txosten asko kaleratu ditu botere publikoen arauak eta ekintzak zuzentzeko proposamenak eginez. Beraz, esan dezakegu lehiaren organoak hazi eta heldu egin direla, eta orain bere lanaren fruituak ikusten hasiko garela.

13.

Eta Europa mailan, nola ikusten duzu bilakaera?

Europako batzordeak urte asko eman ditu lehiaren alorrean lan egiten, eta politikarien eta enpresen errespetua du. Zoritxarrez, krisi sakon batean murgilduta gaude, eta estatuek bankuei eta beste sektore batzuei laguntza publiko izugarriak eman dizkiete, eta estatuen arteko lasterketa bat sortu da ea nork gehiago. Nire ustez, Europako batzordeak ez die aurre egin estatuei behar zen bezala, eta hiritar guztiok ordainduko dugu zergen bitartez.

14.

2007an lehiaren defentsarako lege estatala aldatu egin zen. Lege horrek ekarritako aldaketa inportante bat organoen aldaketa izan zen. Euskal Autonomia Erkidegoan ere lehiaren defentsarako organoen egitura aldatu egin beharko da? Ba al duzu horretarako proposamenik?

Bai, lege berriak organoaren estruktura gaurkotu eta bere ahalmenak indartu egin ditu. Euskadin lege bat behar dugu gaur egun banatuta dauden Euskadiko Lehia Zerbitzua (ikerketa organoa) eta Auzitegia (organo erabakitzailea) batzeko. Gainera, oso onuragarria izango litzateke organo berriak kontsumo eta lehia babesteko ahalmenak jasotzea. Orain arte, kontsumoak ez du jaso merezi zuen arreta. Era berean, Herri Kontuen Epaitegien lana oso beharrezkoa izanda ere, beren txostenak berandu iristen dira; beraz, lehiaren organoek kontratu publikoen arloan ahalmen batzuk izatea proposatzen dut. Azkenez, ez da ulergarria lehia bermatzeko organoen kideak lehiarik gabe hautatuak izatea (mundu osoan antzera egiten dute, politikariek ez dute beren boterea galdu nahi inon). Beraz lege berrian neurri iraultzaile bat sartzea proposatzen dut: organoaren kideak lehiaketa publiko batean hautatuak izatea.

Elkarrizketatzailea: Igone Altzelai Uliondo